

**EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 30ekoa, EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2020ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren aldaketei buruzkoa, 2020. urteari dagokion toki herri administrazioaren alorrean energia eraginkortasunaren eta eguzki termikoaren aldeko inbertsioak sustatzeko laguntza programaren oinarri arautzaileak deitu, onartu eta argitaratzen dituena (EHAA, 2020/01/30).**

Euskal Herriko Agintaritza Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak, testuingurutik argi ondorioztatzen ez badira, eta haren zuzenketak edukian edo dokumentuaren zentzuan itxurazko zein benetako aldaketaren bat ekar badezake, maila bereko xedapen baten bidez zuzendu edo konponduko dira.

Horrelako hutsak eta omisioak aurkitu dira 2020ko urtarrilaren 17ko Ebazpenean, EEEko zuzendari nagusiarena, 2020. urteari dagokion toki herri administrazioaren alorrean energia eraginkortasunaren eta eguzki termikoaren aldeko inbertsioak sustatzeko laguntza programaren oinarri arautzaileak deitu, onartu eta argitaratzen dituena, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian, 20 zenbakian, 2020ko urtarrilaren 30ean, argitaratua, eta, beraz, aldaketa hau egiten da.

2020/429 (9/33) orrialdean, aipatutako laguntza programaren oinarriez ari denean, 4. oinarrian, Jarduera lagungarriak energia eraginkortasunean eta dirulaguntzen zenbatekoa, azken-aurreko paragrafoan,

Honakoa dioenean:

"Gainera, UEP (Udal Energia Plan) edo PACES (Klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Plan) baten barruan sartuta dauden jarduerak dirulaguntza gehigarri jaso dezakete; zehazki, kostu lagungarriaren %5."

Honako hau esan behar du:

"Gainera, UEP (Udal Energia Plan) edo PACES (Klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Plan) baten barruan sartuta dauden jarduerak, 4. oinarri honetako b) eta c) atalekoek, dirulaguntza gehigarri jaso dezakete; zehazki, kostu lagungarriaren %5".

Bilbo, 2020ko urtarrilaren 30a

Zuzendari nagusia,

Iñigo Ansola Kareaga